Lan-eskaintzen erregistroa 2019ko abenduan

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2019ko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 640 izan da, azaroan baino 414 gutxiago eta joan den urteko abenduan baino 57 gutxiago. Egunean bataz bestez 37 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 16 eskaintza gutxiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2019ko abenduan 109 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 261 Gipuzkoan eta 270 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 42,2 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 40,8 Gipuzkoan eta % 17 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 36,6 murriztu dira eskaintzak (63 eskaintza gutxiago), Bizkaian % 46,3 (233 eskaintza gutxiago) eta Gipuzkoan, azkenik, % 31,1 jaitsi dira (118 eskaintza gutxiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 3 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 2,8ko hazkundea; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, eskaintza kopurua murriztu egin da, % 17,4ko murrizketa lehen kasuan (-57) eta %1,1 Gipuzkoan (3 eskaintza gutxiago).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. Zerbitzuetan 149 eskaintza erregistratu dira (% 23,3 ko pisua); zientziako teknikarien profilak jarraitzen dio (113 eskaintza, %17,7ko pisua). Laguntzako teknikarien, ez-kualifikatuen eta industriako kualifikatuen lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 100, 95 eta 81 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak lehen sektorekoak (2) eta zuzendariak izan dira (4).

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza guztiak murriztu dira. Kopuru absolutuetan gehien murriztu den eskaintza industriako profila izan da (-107 eskaintza, % 56,9ko murrizketa); balio erlatiboetan, aldiz, lehen sektorekoak izan dira gehien murriztu direnak (% 81,8ko murrizketa, 9 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, gehien murriztu direnak, kopuru absolutuetan, industriako profileko eskaintzak izan dira (37 eskaintza gutxiago, %31,4ko murrizketa); kopuru erlatiboetan, hil arteko datuetan bezala, lehen sektorekoak izan dira (% 66,7ko murrizketa, 4 eskaintza gutxiago). Gehien hazi diren eskaintzak, kopurutan, administrarien profilekoak izan dira (8 eskaintza gehiago) eta portzentaian, aldiz, zuzendariak (%100, 2 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 16,1ek kontratu mugagabea eskaini dute; % 83,7k, aldi-baterakoa, eta, gainontzeko % 0,2k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 103 izan dira, 15 gutxiago aurreko hilabetearekin alderatuz, %12,7ko murrizketa. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 398 gutxiago izan dira: 536 eskaintza guztira. Kopuru erlatiboetan murrizketa %42,6koa da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintza bakarra izan da abenduan, aurreko hilean baino 1 gutxiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen 6 eskaintza gehiago erregistratu dira (% 6,2ko hazkundea); aldi baterako kontratuen eskaintzak, aldiz, % 10 murriztu dira (59 eskaintza gutxiago) eta, azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintza murrizketa 4koa izan da (-% 80).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2019ko abenduan erregistratutako lan-eskaintzen %72,8k (466 eskaintza) 0 tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 17,8k (114) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; urte batetik 3 urtera eta 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek, hain zuzen; % 7,6ko eta % 0,4ko pisua dute, hurrenez- hurren (49 eta 11 eskaintza guztira). 5 urte baino gehiago eskatzen duen lan-eskaintzarik ezta egon abenduan.



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak murriztu dira. Gehien murriztu diren eskaintzak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (331 eskaintza gutxiago, %41,5ko murrizketa). Balio erlatiboetan 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira jaitsiera handiena jasan dutenak (- %100, 4 eskaintza gutxiago).

Urte arteko konparaketari dagokionez, eskaintza guztiak jaitsi dira, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak salbu, hauek, berdin mantendu dira. Gehien murriztu diren eskaintzak, balio absolutuetan, 1 eta 3 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (22 eskaintza gutxiago, % 31ko murrizketa); balio erlatiboetan, aldiz, 5 urte baino gehiago eskatzen dutenak izan dira (-100, 3 eskaintza gutxiago).

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 17,7k zehazten du datu hori (640 eskaintzetatik 113). 113 eskaintza horietatik, 86 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 27ak lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko 64 eskaintza gutxiago erregistratu dira azaroarekin alderatuz (% 42,7ko murrizketa). Lanaldi partzialeko eskaintzak 17 gutxiago izan dira (-%38,6).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko 15 eskaintza gutxiago izan dira (% 14,8ko murrizketa); lanaldi partzialeko eskaintzen kasuan, 16 gutxiago erregistratu dira (% 37,2ko murrizketa). Aztertutako hiru hilabeteetan (2018ko azaroa, 2019ko iraila eta 2019ko azaroa), lanaldi partzialeko eskaintzen pisu handiena 2018ko abenduan izan zen, %22ko pisuarekin, lanaldi mota zehazten duten eskaintza guztien artean.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen % 0,6 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 640 eskaintzetatik 4. Murrizketa nabarmena da, izan ere, aurreko hilean 8 izan ziren eta 2018ko abenduan 4 ere.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 85,3k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 640 eskaintzetatik 94k soilik zehaztu dute.

94 eskaintza horietatik, 52k LHko prestakuntza maila eskatu dute (%55,5ek); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraiki, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 31 eskaintza. Azken lekuan, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 4 eskaintzekin, eta % 4,2ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 94 eskaintzen artean.



Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago abenduan, azaroan baino lan-eskaintza gutxiagotan zehaztu dela prestakuntza maila (94 eskaintza abenduan; 188 azaroan), eta hauen pisua eskaintza guztien artean ere txikiagoa izan da (%14,7 abenduan eta % 17,8 azaroan).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak murriztu dira. Derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien murriztu direnak, 33 eskaintza gutxiago (% 82,5eko murrizketa).

2018ko abenduarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak murriztu dira, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan ezik; hauek 2 eskaintzatan hazi dira (% 4ko hazkundea). Gehien murriztu direnak oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (11 eskaintza gutxiago, % 61,1eko murrizketa), bai balio absolutu eta erlatiboetan ere.

- ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen den jarduera merkataritza izan da, eskaintzen % 13,9ko pisuarekin (89 eskaintza guztira). Garrantzitsuak izan dira ere industria eta osasun jarduerak, %11,6 eta %9,8ko pisuarekin, hurrenez- hurren (72 eta 63 lan-eskaintza, 640 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz gero, gehien murriztu diren eskaintzak, kopuru absolutuetan, administrazio publikokoak izan dira (122 eskaintza gutxiago, %75,3ko murrizketa). Argindar horniketako eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak kopuru erlatiboetan (% 100eko murrizketa, 8 eskaintza gutxiago). Gutxi dira hazi diren eskaintzak; hauen artean, gehien hazi direnak, informazio eta komunikaziokoak izan dira (9 eskaintza gehiago, %50eko hazkundea).

Urte arteko saldoari erreparatuz, behera gehien egin dutenak, kopuru absolutuetan, erauzketa industriako eskaintzak izan dira (-25); kopuru erlatiboetan, aldiz, lehen sektorekoak izan dira (-5, -% 62,5). Bestalde, informazio eta komunikaziokoak izan dira gehien hazi direnak, (27 eskaintza aurten, 7 iazko abenduan).